# *AMABITXIAREN PLANA (1)*

Errauskineren amabitxia lur jota zebilen: neska harekin ez zeukan zereginik. Izan ere, haren zoriontasuna lortu arte, amabitxi lanetan jarraitu beharko zuen, jubilatu ezinik. Baina nola demontre lortuko zuen hori? Nola izan zitekeen zoriontsua beti errautsak eta besteen zikinak garbitzera behartuta zegoen neskato bat?

Etsi bidean, telebistan arratsaldeko txutxu-mutxu saioek baino ez zuten kontsolatzen: Printzipea ez zela ezkontzen, agian bestelako gustuak zeuzkala, agian ezgauza zela zereko zerean, Erregeak dantzaldia antolatu zuela emaztegaia topatzeko...

Orduan, ideia bikaina bururatu zitzaion amabitxiari:

-Hara, badakit zer egin ahal dudan! –bota zuen ahoz gora, etxean bakarrik zegoen arren–. Errauskineri soineko ederra, bitxiak eta abarrak **eskuratuko banizkio**, Errauskine dantzaldira **joango litzateke** eta printzipea **ezagutuko luke**. Orduan, biek gau osoa dantzan **emango lukete** eta, ezinbestez, **maiteminduko lirateke**, gero ezkontza...!

Bat-batean amabitxiaren kopeta ilundu zen:.

-Et, et, et... errazagia ematen du plan honek! Dena ziurtatu behar dut, baina nola? A, badakit! Errauskineri etxera itzultzeko ordua **emango banio**, dantzalditik korrika joatean printzipea gogo larriz **utziko luke**. Horrelakoak dira gizonezko guztiak, ba! Horrek printzipearen desioa **areagotuko luke**, eta ezinegonez **egongo litzateke** bere maitea berriro noiz ikusiko. Horrela, aste batzuk sufritzen eman ondoren, Errauskine hain pobrea izatea **ez litzaioke inportako**. Ondo da, baina nola aurkituko du printzipeak berriro Errauskine? A, badakit! Kristalezko zapata bat **sorginduko banu**, Errauskinek eskileretan **galduko luke**, eta neska horrek hain neurri arraroa daukanez, 37,3 oker ez banago, bada, orduan printzipeak erraz **aurkituko luke**, agian erresumako neska guztiekin proba egin ondoren, baina **aurkituko luke** azkenean! Orduan printzipeak ezkontzeko **eskatuko lioke** Errauskineri eta ni **jubilatuko nintzateke**. Plan borobila da, bai horixe!

Pentsatu bezala prestatu zituen gauza guztiak amabitxiak, eta egun seinalatuan malkoei eutsi ezinik ikusi zuen nola igo zen Errauskine kalesara jauregiara joateko. Ortzemugan suziriek zerua kolorez betetzen zuten.

# *ERRAUSKINE, HAMABIETAN ETXEAN (2)*

...Eta jauregiko erlojua hamabiak jotzen hasi zen. Orduan, Errauskinek printzipearen eskuak askatu eta korrika abiatu zen etxera. Ozta-ozta iritsi zen amabitxiaren hitzordura. Ganbaran aurkitu zuen, luze iritzita.

-Berandu zabiltza –egin zion errieta amabitxiak–. Nik utzitakoak ekarri al dituzu?

Erruskinek pozarren baietz esan zion burua astinduz. Ezin izango zuen gau zoragarri hura inoiz ahaztu.

-Dena ekarri dut, amabitxi. Kapoan kalesa, zaldiak eta morroiak dituzu, eta hemen bitxiak , soinekoa eta zapatak. Mila esker, amabitxi.

Amabitxiak, ordea, ikaraturik begiratu zien kristalezko zapateei.

-Baina, baina... biak ekarri dituzu!!! Ai ene, dena prestatua neukan nik!!! –Begiak sutan galdera egin zion Errauskineri–: Baina ez zenuen bat galdu eskaileretan?

-Hara, amabitxi, nola dakizu? Egia da, baina atzera joan eta berriro jaso nuen.

-Ai ene!!! Dena galduta, dena galduta...!!! Nire jubilazioa ere galduta!!!

-Baina zer duzu, amabitxi...? Izutzen hasi naiz!!!

-Ene, azalduko dizut: Kristalezko zapata eskaileretan **utzi izan bazenu**, neska kaskari horrek, bada, orduan printzipeak **hartuko zuen** (zukeen). Zorabiaturik, zurekin txora-txora eginda, hasieran **ez zuen** (zukeen) **jakingo** zer egin. Dantzaldiko gonbidatuei **galdetuko zien** (ziekeen) ea nor zen kristalezko zapatako neska, baina inork **ez zion** (ziokeen) **erantzungo.** Orduan Erresumako zapatariengana **joango zen** (zatekeen), baina alferrik. Gero, dantzaldira gonbidatutako guztien izenak eta helbideak **hartuko zituen** (zituzkeen), eta banan-banan etxeetara **abiatuko zen** (zatekeen) neska guztiei kristalezko zapatarekin proba egiteko. Etsitzeko bidean, azken etxeraino **irtsiko zen** (zatekeen), hau da, etxe honetara. Zure ahizpaordeekin proba **egingo zuen** (zukeen). Egia esateko, ez dakit zergatik; begi-bistakoa **izango zen** (zatekeen) neska zatar horiek ez zirela. Baina, tira. Printzipeak etsipenari bide **emango zion** (ziokeen), zu inoiz **aurkituko ez zintuela** (zintuzkeela) **pentsatuko zuen** (zukeen), baina orduan zu **agertuko zinen** (zanatekeen). Zutaz **galdetuko zuen** (zukeen) printzipeak, eta zure ahizpaordeek **barre egingo zuten** (zuketen). Halere, printzipeak zuri proba **egingo zizun** (zizukeen), berarekin **ezkonduko zinen** (zinatekeen), biok betiko zoriontsuak **izango zineten** (zinateketen)...

-Baina zein konplikatuak diren zure planak! Dantzalditik joan baino lehen nire telefono zenbakia eman diot printzipeari! Hara, begira, SMS bat bidali dit: "2ar jrgi tzn ltrak bai?"

-Jainko maitea!